

Mens sana in corpore sano



ZER EGINGO DUGU?

Proiektu honetan ikasleei erronka bat jarriko diegu:

Zure ingurukoei ohitura osasungarriak kutsatu eta mezua birala egin ezazu.

Komunikabideen boterea erabiliko dugu gure lanari hasiera emateko eta egiten dugun guztia zabaltzeko?

Ekin!

ZER IKASIKO DUGU?

NATUR ZIENTZIAK

Giza gorputzaren bizi-funtzioetako organo nagusiak identifikatzea eta aurkitzea.

Bizitzako ohitura jakin batzuk gorputzaren funtzionamendu egokiarekin erlazionatzea.

EUSKARA

Komunikazio-asmo desberdinetako testuak sortzea, haien egitura errespetatuz eta ezagutzen dituzten ortografia-arauak aplikatuz, kaligrafia, ordena eta aurkezpena zainduz.

Hizkuntzaren erabilera pixkanaka hobetzea, ekoizpenetan sormena erabiliz.

GIZARTE ZIENTZIAK

Helduaren laguntzarekin eta jarraipenarekin, erantzunkizuna, ahaleginarekiko gaitasuna, ikasteko jarraitasuna eta norberaren ikaskuntza-prozesuari buruzko hausnarketa garatzea.

ARTE HEZKUNTZA

Musika-hizkuntzaren ezagutzak musika-konposizio errazen ahozko interpretazioan eta interpretazio instrumentalean aplikatzea.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Gorputz-jarreraren higienerari dagokionez, gorputza zaintzeari buruzko arauak betetzearen garrantzia ezagutzea.

